

Talde humanitarioak bidali egin dituzte Kongoko Errepublika Demokratikotik

Ondorioz, naziorteko erakundeak oso arduratuta daude errefuxiatu ruandarren egoerarekin

Elkarre humanitario guztietako langile eta boluntarioak kanporatzea erabaki du Kongoko Errepublika Demokratikoko (Zaire ohia) Gobernuak. Elkarre egiteko nagusia errefuxiatu ruandarrei laguntza ematea zen, eta, ondorioz, babesik gabe geratu dira errefuxiatuak. Gainera, tutsi eta hutuen arteko borrokak berpiztu dira Ruandan.

Agentziak / Kinshasa-Kigali

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO (Zaire ohia) Gobernuak, herrialde horretan zeuden elkarre humanitarioetako kideak kanpora bidaltzea erabaki zuen herenegun. Laurent Desire Kabila lehendakariaren gobernuaren aginduen berri izan bezain laster, elkarre humanitario horietako arduradunak Kongoko Errepublika Demokratikoan ziztuzten langile eta boluntarioak handik ateratzen hasi ziren atzo.

Elkarre humanitarioek Kongoko Errepublika Demokratikoan egiten zuten lana, herrialde horretako ekialdean pilatuta dauden Ruandako errefuxiatu ruandarrei laguntza ematearen batez ere. Laguntza humanitarioak elkarre kanporatzeaz gainera, Ruandarekiko muga ixtea erabaki du Kabilaren gobernuak, eta inguru horretan -Iparraldeko Kivu eskualdean- dauden errefuxiatu ruandarrak kanporatzea.



Laurent Desire Kabila Kongoko Errepublika Demokratikoko lehendakaria, maiatzaren 2an, bere burua lehendakari izendatu zuenean.

HELENA VALENTE / AP

Izan ere, Kabilak Mobutu lehendakari ohiaren aurka izan zuen gerran Mobuturen alde jokatu izana leporatzen die Kongoko Errepublika Demokratikoko Gobernuak errefuxiatu ruandarrei.

Ondorioz, nazioarteko laguntza humanitarioak elkarre oso arduratuta agertu dira errefuxiatu ruandarren geroari dagokionez: batetik, laguntza humanitarioak gabe oso zaila izango zaiela Kongoko Errepublika Demokratikoko errefuxiatu eremuetan bizitzea, eta, Ruandara itzuliz gero, gobernuaren errepresaliak ja-

sango dituztelako. Gainera, atzo jakin zen azken egunotan Ruandan borrokak izan direla Armadaren -tutsiak dira soldadu gehienak- eta erreboltari hutuen artean. Hain zuzen ere, Kongoko Errepublika Demokratikoko mugan jazo dira enfrentamenduak.

Kabilak soldaduak bidali ditu

Brazzavillera • Inguru horretan gordintzen ari den beste gatazka bat, Kongoko Errepublikako -Kongo ibaia da Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Kongoko Errepublikaren arteko muga- le-

hendakari Pascal Lisuba eta lehendakari ohi Sasu Nguesoren tropen artekoa da. Kabila eta Lisuba elkarren aliatuak dira, eta, horregatik, Kongoko Errepublika Demokratikoko lehendakariak ehundaka soldadu bidali zituen atzo Brazzavillera, Kongoko Errepublikako hiriburura. Ngueso lehendakari ohiak «gerra deklarazioz» jo du Kongoko Errepublikari Demokratikoaren interbentzioa. Ekainaren 5ean Kongoko lehendakariaren eta lehendakari ohiaren arteko gatazka piztu zenetik 7.000 bat lagun hil dira. X

Beste 87 zibil hil dituzte ustezko islamistek Algerian

■ Giro odoltsu horretan hasi zen atzo urriaren 23ko udal bozketetarako hauteskunde kanpaina

Agentziak / Aljer

ASTEAZKEN gauaz geroztik gutxienez 87 zibil hil dituzte, ustez talde islamista armatuek, Algerian. Aljer hiriburua inguruan eta Blida, Medea eta Oran eskualdeetan izandako erasoetan jazo dira heriotza guztiak. Erasoetatik

lehenengoa asteazken iluntzean gertatu zen Oranen. Ustez Talde Islamista Armatuko (GIA) kide zen komando bat, hamarren bat lagunek osatua, Jarruba izeneko herriskian sartu zen, eta aurrean harrapatu zituzten guztiei lepoa moztu zieten. Guztira 14 lagun hil zituzten.

Lekukoek azaldu zuten, erasotzaileetako batek esan zien GIAkoak zirela eta ohartarazi zien 'bide zuzenetik' aldentzen den guztia hilko dutela, 'erretzen duten eta telebista ikusten duten guztiak'. Madani FISeko buruzagia hiltzeko asmoa dutela aitortu bide zuen. Oranen beste hiru pertsona hil zituzten egun berean.

Ostegun gauean 38 pertsona hil zituzten Blida eskualdeko Buinam herrian. Erasotzaileek argindarra moztu zuten lehendabiziz, eta, ondoren, bizilagun guztiak atera zituzten etxetik lepoak mozteko. Gau horretan bertan, 22 pertsona hil zituzten Medea

eskualdeko Uled Benaioa herrian. Era berean, familia bereko sei kide hil zituzten Aljerdik 30 kilometrorra, Amrusa herrian.

Herenegun, berriz, etxean egindako morteroen bidez Blida eskualdea bonbardatu zuten. Erasoaren ondorioz 4 lagun hil ziren eta 200 zauritu.

Giro odoltsu horretan atzo hasi zen urriaren 23an egingo diren udal hauteskundeetarako kanpaina. Liamine Zeroual lehendakariak asteazkenean nabarmendu zuenez, ez du inolako asmorik Salbaziorako Fronte Islamikoak eskaintako su-etena aintzat hartu eta elkarriketak hasteko. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria

"ERNE CASTING-a !!!

20 ETA 30 URTE BITARTEKO GAZTEAK BEHAR DITUGU TELEBISTA SAIO BATEKO AURKEZLE ZEIN ERREPORTARI IZATEKO. TELEBISTA GUSTOKOA BADUZU ETA KAMAREI MUZIN EGITEN EZ BADIEZU, HAU DA ZURE AUKERA!

DEI EZAZU 909-444621 TELEFONORA."

laburrean

EUROPAKO BATASUNA

■ Ekialdera hedatzearen ondorio ekonomikoak aztergai

BIHAR Luxemburgon bilduko dira Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako Atzerri ministroak, eta Ekialdeko Europara hedatzeak Batasunean izango dituen ondorio ekonomikoak aztertuko dituzte. Izan ere, Batasuneko estatuek jarrera desberdinak dituzte hedatzeari buruz. Hainbat herrialdek uste dute Ekialdeko Europako estatuak sartuz gero, Kohesio Fondoetatik jasotzen duten dirulaguntza gabe geratuko direla edo asko gutxituko zaiela, eta murrizte hori ez dute onartzen. X

T X I L E

■ Hil artean senadore izaten segituko du Pinochetek

AUGUSTO PINOCHET jenerala, urte luzez Txileko diktadore izandakoak, Armadatik erretiratzin denean hil arteko senadore izango dela jakinarazi du. Kargu hori hartzeko, bere diktadura garaian onartutako lege batean oinarritu da Pinochet; izan ere, estatu-buruak biziarteko senadore kargua izango zuela esaten zuen lege horrek. Dena dela, Txileko gizarte eta politikako sektore gehienek haserre piztu du Pinocheten erabakiak. X

K O L O N B I A

■ Gutxienez 9 lagun hil dira batzorde judizial baten aurkako atentatuan

ITURRI militarrek jakinarazi dutenez, gutxienez bederatzi lagun hil ziren ostiralean San Carlos de Guarean -Bogota hiriburutik 120 kilometrorra- batzorde judizial baten kontra egindako atentatuan. Iturri horien arabera, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzailea (FARC) deritzon gerrillak egin zuen atentatua, eta gerrillarietako batzuk ere hil ziren erasoan. X

I T A L I A

■ Beste lurrikara bat jazo da Umbria eskualdean

MERCALI eskalan sei puntu-ko indarra hartu zuen lurrikara bat izan zen atzo goizean Italia erdialdeko Umbria eskualdean. Hala ere, mugimendu horrek ez zuen inor zauritu, ez kalte materialik eragin. Iragan asteko ostiralaz geroztik, lurrikara ugari izan dira Italiako eskualde horretan, eta hogeiren bat lagun hil dira haien eraginez, eta erakin ugari hondatu. X